BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3536

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 9koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduko dirulaguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Kulturako sailburuaren agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren artxibo sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten dirulaguntzak emateko modua arautu zen.

Dirulaguntza publikoak emateko orduan publizitate-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, dirulaguntzen onuradunak eta emandako zenbatekoak adierazten dituena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren artxibo sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.- Kulturako sailburuaren 2010eko abenduaren 22ko Aginduaren babesean 2011ko ekitaldian emandako dirulaguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren artxibo-sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten dirulaguntzak emateko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 9a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA/*ANEXO*

Udalak eta erakundeak *Ayuntamientos y entidades*	Euroak *Euros*
Alonsotegi	10.611,93
Anoeta	9.165,00
Añana	3.628,86
Aramaio	1.880,92
Arratzu	6.136,20
Asteasu	20.000,00
Azkoitia	11.281,20
Azpeitia	16.449,20
Balmaseda	4.661,00
Barrundia	13.061,11
Berriatua	11.682,00
Busturialdeko Ur Partzuergoa *Consorcio de Aguas de Busturialdea*	20.000,00
Elgoibar (I. programa)	5.129,52
Elgoibar (II. programa)	5.900,00
Errezil	4.720,00
Etxebarri	6.136,00
Ezkio-Itsaso	20.000,00
Getaria	9.145,00
Legutio	1.880,92
Lemoiz	2.065,00
Ormaiztegi	8.757,00
Orozko	5.900,00
Pasaia	13.000,00
Plentzia	5.015,00
Txorierriko Mankomunitatea *Mancomunidad del Txorierri*	19.276,78
Urduña/Orduña	7.273,82
Uribe Kostako Mankomunitatea *Mancomunidad de Uribe Kosta*	4.790,80
Urkabustaiz	1.880,92
Urnieta	4.173,59
Valle de Trápaga-Trapagaran	6.813,61
Villabona	7.080,00
Zalla	8.742,78
Zigoitia	1.880,92
Zuia	1.880,92
Guztira / *Total*	280.000,00